

# Homenaje a l@s esclav@s del franquismo / Omenaldia frankismoaren esklaboei

20 urte memoriaren aldeko lanean 2004 – 2024 20 años de trabajo memorialista

¡Alto al genocidio en Gaza! / Geldiarazi genozidioa Gazan

**Puerto de Igal / Vidángoz (Navarra), 22 de junio de 2024**

**Igari / Bidankoze mendatea (Nafarroa), 2024, ekainak 22**

"Juantxo bihotzean"

ekainak 22 de junio  
2024  
A las 12:30-etan

Frankismoaren esklabuei omenaldia  
Homenaje a l@s esclav@s del franquismo

Igal-Bidankoze Mendatea  
Puerto Igal-Vidángoz



memoriaren bideak  
esclav@s del franquismo - frankismoaren esklaboei  
Antolatzailea  
Organiza

INSTITUTO NAVARRO DE LA  
MEMORIA  
REN NAFARRICAKO INSTITUTUA

geronimouztariz  
COM

LARRA

ARISTU

Laguntzaileak  
Colaboran

MEMORIAREN BIDEAK  
esclav@s del franquismo - frankismoaren esklaboei



## *Geldiarazi Palestinar herriaren aurkako genozidioa*

### **Omenaldia frankismoaren esklaboei**

#### **2024, ekainak 22ko ekitaldiko egitaraua eta parte-hartzaileak**

Aurten berriro ere Igari – Bidankozeko mendatean frankismoaren esklaboei eta bere senitartekoei omenaldia egiteko elkartuko gara. Oraingo honetan 20 urte betetzen dira 2004ko ekainaren 19an lehen omenaldia ospatu genuenetik, zeinean errepide honetan aritu ziren 12 gatibuk parte hartu zuten. Haiekin batera bertaratu ziren haien senitartekoak eta Vicente Lacasia, monolitoa inauguratu zuen Burgiko gatibu antifaxista.

Ordutik, Memoriaren Bideak elkarteak beti uztartu nahi izan ditu oroimen historikoa eta gaur eguneko giza eskubideen urraketen salaketa. Horregatik, aurten **Gazan biztanleri palestinarraren aurka Israelek buruturiko genozidioaren salaketarekin** bat egingo dugu.

Ekitaldia eguerdiko 12:30etan hasiko da, Igari eta Bidankoze herriak lotzen dituen errepidearen mendatean, 1939 eta 1941 bitartean 2400 antifaxistek ireki zuten errepidearen ondoan, alegia.

- Ohi bezala, **Juan Kruz Lakasta** kazetariak zuzenduko du ekitaldia.
- 2004an gurekin izan zen Cecilio Gordillo, Andaluziako Memoria Histórica y Justicia Elkarteko partaidea, eta bortxazko lanen inguruko ekimeneko bultzatzaileetako bat. Orduan ia bakarra zen ekimen hori, eta gaur egun horrelako gero eta eremu gehiagotan ari dira errealitate hori azalarazten. Horregatik, norabide horretan lan egiten duten **elkarte batzuek** parte hartuko dute:
  - Andaluziako **Nuestra Memoria** elkartearen izenean **Paqui Maquedak** hitz egingo du, elkarre horrek ekimenak bultzatu baitu **Sevillako Presoen Ubidea** izenekoaren inguruan.
  - **Oiartzundik Kattin – Txiki** elkarteko partaideak etorriko dira, eta haien izenean **Mikel Mendizabalek** hitz egingo du, bertan **berreraiki duten barrakoiaren** berri emanez.
  - **Bustarviejoko Los Barracones** elkartearen izenean (Madril) **Sergio Riescok** hartuko du parte, **Madril – Burgos burdinbidean presoek eginiko lanaren** inguruko memoria ekimenak aurkeztuz.
- 20 urte hauetan pausu asko eman ditugu errealitate hau ezagutarazteko, eta horien artean batzuk gogoratuko ditugu:
  - **Gatibuen senitartekoek** kurtso honetan aurkezturiko **kereila judizialaren** berri emango dute, zeinaren bidez bortxazko lanak gizateriaren aurkako krimen gisa aitortzea eskatzen den.
  - Ekimen hau sindikatu gehienek babestu dute, eta horregatik kereila bultzatu duen **CEAQUA**ren ordezkari batek, **Sabino Cuadrak**, kereilarekin bat egin duten sindikatuen izenean (**CCOO, CGT, EHNE, ELA, ESK, LAB, SOLIDARI, STEILAS eta UGT**) hartuko du parte.
  - Urte hauetan errepide hau eta bere inguruko eraikinak gero eta babestuago daude. Ildo honetan, Igariko barrakoiaren berreraikitzea eta errepidea Nafarroako Memoria Toki gisa izendatu duen **Nafarroako Memoriaren Institutuko zuzendariak, Josemi Gastónek**, hitza hartuko du.

- Urtero bezala, gaur eguneko egoerak salatzen duen unea ere izanen dugu, eta aurten **Israelek Palestinako biztanlearen aurka martxan duen genozidioaren aurkako** mundu mailako ekimenekin bat egingen dugu. Horretarako **Yala Nafarroa con Palestina** elkarteko **Miriam Bravo ekintzaile eta Ola Arafat emakume palestinarrek** hitz egingo dute. Azken honek 50 senitarteko baino gehiago galdu ditu Gazaren gaineko azken erasoetan.
- Ohi bezala, omenaldian eskualde ezberdinetako **gatibuen senitartekoe**k parte hartuko dute, hala nola **Andaluzia, Bizkaia, Katalunia edota Haute-Garonne (Francia)**.
  - **Cristina Contreras y Toni Monzó**k errepublikaren honetan lan egin zuten **Jaengo Albanchez herriko** gatibuen senitartekoen izenean hitz egingo dute.
  - Horien artean, **Nati Martínezek, Antonio Martínez gatibu bizkaitarraren alabak**, duela 20 urte bezala, bere aitak **Bidankozen 1940an idatzitako Prisioneros** poema errepublikatuko du.
  - **Chantal Pénicaut Gorrindo**, Gardeko emakume erbesteratu baten alaba, **Moramont de Commingesetik helduko da (Haute-Garonne, Francia)** eta **VMRE (Voyages Mémoires République Espagnole)** elkartearen izenean mintzatuko da.
- Musikari dagokionez, honako parte-hartzaileak espero ditugu
  - **Otsagiko Dantzariak eta Ilunberriko Gaiteroak** omenaldi ireki eta itxi egingo dute
  - **Iñaki Labaka kantautorea**, omenaldi honetarako espreski abesti bat konposatu duena.
  - Ohi bezala, ohorezko aureskua **Gorka Mediavilla** dantzariaren eskutik jasoko dute omenduek, **txistu eta perkusioarekin Xanti Begiristain, Kepa Vales eta Andoni Uzchedak lagunduta**.
- **Katakarak liburudendak** bere postua jarriko du, eta aurten sail berezi bat egonen da Palestinako egoerari buruz. Horretaz aparte, berriki argitaraturiko **El Cirujano y el Pastor, Resistencia al nazismo en la Selva de Irati** izeneko liburua ere salgai egonen da. Bertan **Meg Ostrum** ikerlariak II Gerrate Mundial bitartean Iratin barna antolatutako ihes sarea azaltzen du (Katakarak argitaletxea).
- Omenaldiaren ondoren, **bazkari autogestionatua** egingo dugu Bidakonzeko frontoian. Elkarrekin ogi-mamiak, txurrasko eta edaria banatuko ditu. Bazkalostea **Bixen Aldaz Goñi DJak** alaitu du bere musikarekin, eta omenaldiaren soinua ere bere ardura izanen da.
- Omenaldi honetan ohiko da hainbat ilustratzaile eta diseinatzaileek eskuzabaltasunez parte hartzea, eta aurten **Irati García Etxeondo** ilustratzaileak eman dio jarraipena tradizio honi, omenaldiaren kartela diseinatu.

**Omenaldia Bi Ahizpak** ekoizleak grabatuko eta editatuko du, beraz, laburpen bat ikusgai egonen da gure webgunean eta Youtubeko kanalean (<https://www.youtube.com/@memoriarenbideak6014/videos>) .

Gainera, uda honetan Memoriaren Bideak, **Otsagiko Naturaren Interpretazio Zentruarekin** eta **Nafarroako Memoriaren Institutuarekin** elkarlanean, bisita gidatuak egingo ditu Igarin berreraiki zen barrakoian, non errepublikaren irekitzen aritu ziren gatibuek lo egiten zuten.



*¡Alto al genocidio contra el pueblo palestino!*

## **Homenaje a l@s esclav@s del franquismo**

### **Programa y participantes el 22 de junio de 2024**

Volveremos este año al alto de Igal – Vidángoz para homenajear a los y las esclavas del franquismo, así como a sus familiares. Este año, además, **se cumplen 20 años desde aquel 19 de junio de 2004**, cuando celebramos el primero de estos homenajes, con la presencia de 12 prisioneros que estuvieron realizando trabajos forzados en esta carretera. Junto a ellos estuvieron también sus familiares, y Vicente Lacasia, prisionero natural de Burgui, encargado de la inauguración del monolito.

Desde entonces, el colectivo *Memoriaren Bideak* siempre ha querido vincular la memoria histórica con problemáticas actuales, de manera que siga siendo una herramienta para la defensa de los derechos humanos, y este año hemos querido unirnos a la **denuncia mundial del genocidio desatado por el estado de Israel contra la población palestina en Gaza**.

El acto se iniciará a las 12:30, en el puerto de esta carretera que une Igal y Vidángoz, en la que trabajaron más de 2.400 prisioneros antifascistas entre 1939 y 1941.

- Como en otras ocasiones, el acto será presentado por el periodista **Juan Kruz Lakasta**.
- En 2004 nos acompañó en el homenaje Cecilio Gordillo, de la Asociación Memoria Histórica y Justicia de Andalucía, impulsora de una iniciativa pionera en torno al **trabajo forzado**, el Canal de los Presos, en Sevilla. Hoy en día cada vez hay más espacios en los que se visibiliza esta realidad, y para ello nos acompañan **diversas asociaciones** que impulsan este trabajo:
  - Por parte de la asociación andaluza **Nuestra Memoria**, que ha impulsado iniciativas en torno al **Canal de los Presos, en Sevilla**, tomará la palabra **Paqui Maqueda**.
  - Desde **Oiartzun**, en Gipuzkoa, intervendrá **Mikel Mendizabal**, de la asociación **Kattin-Txiki**, dando noticia de la **reconstrucción de un barracón de prisioneros** en Oiartzun
  - **Sergio Riesco**, en nombre de la **asociación Los Barracones (Bustarviejo, Madrid)**, presentará su iniciativa en torno a los Destacamentos Penales de la **línea de ferrocarril Madrid – Burgos**.
- Durante estos 20 años han sido múltiples los pasos que hemos dado para dar a conocer esta realidad, y entre ellos hay tres que queremos recordar este día:
  - Por un lado, **familiares de estos prisioneros** darán noticia de la **querrela judicial** presentada durante este curso para el reconocimiento del trabajo forzado bajo el franquismo como crimen contra la humanidad.
  - Esta denuncia ha sido respaldada por la gran mayoría del mundo sindical (**CCOO, CGT, EHNE, ELA, ESK, LAB, SOLIDARI, STEILAS y UGT**), de modo que Sabino Cuadra, miembro de la coordinadora que ha impulsado la querrela, CEAQUA, hablará en nombre de estos **sindicatos**.
  - En todos estos años esta carretera y los espacios de cautiverio a su alrededor han ido estando cada vez más señalizados y protegidos. Tomará la palabra **Josemi Gastón**, director del **Instituto Navarro de la Memoria**, que ha impulsado la reconstrucción del barracón de Igal y la declaración de la carretera como lugar de Memoria de Navarra.

- Como todos los años, habrá un espacio para la denuncia de situaciones actuales, y este año nos uniremos a la ola mundial de **denuncia del genocidio que sufre la población palestina** por parte del estado de Israel. Para ello tomarán la palabra, en nombre del colectivo **Yala Nafarroa con Palestina**, la **activista Miriam Bravo y Ola Arafat, mujer palestina** que ha perdido más de 50 familiares en los recientes ataques sobre Gaza.
- Participarán también en el homenaje **familiares de prisioneros** de diversas procedencias, como **Andalucía, Bizkaia, Catalunya o Haute-Garonne (Francia)**.
  - **Cristina Contreras y Toni Monzó** hablarán en nombre de los familiares de los prisioneros de **Albanchez (Jaén)** que trabajaron en esta carretera
  - **Nati Martínez**, hija del prisionero bilbaíno Antonio Martínez, recitará, al igual que en el homenaje de 2004, el **poema Prisioneros**, escrito por su padre en Vidángoz, en 1940.
  - **Chantal Pénicaut Gorrindo**, hija de una exiliada de Garde, acudirá desde **Moramont de Comminges (Haute-Garonne, Francia)** y hablará en nombre de la **asociación VMRE (Voyages Mémoires République Espagnole)**.
- En cuanto a las actuaciones musicales, está prevista participación de:
  - **Grupo de Dantzaris de Otsagabia** y los **Gaiteros de Lumbier**, que abrirán y cerrarán el acto.
  - El **cantautor Iñaki Labaka**, que ha compuesto una canción para esta ocasión.
  - Como de costumbre, el auresku de honor lo realizará el dantzari **Gorka Mediavilla**, acompañado al **txistu** y la **percusión** por **Xanti Begiristain, Kepa Vales y Andoni Uzkeda**.
- La **librería Katakarak** pondrá un puesto en el que tendrán un hueco especial libros relacionados con la situación en Palestina. Además, también estará a la venta el libro recientemente publicado, *El Cirujano y el Pastor; Resistencia al nazismo en la Selva de Irati*, de **Meg Ostrum**, en el que se da cuenta de la investigación sobre la red de evasión a través de Irati durante la II Guerra Mundial (Editorial Katakarak).
- Tras el homenaje, continuaremos el encuentro en el frontón de Vidángoz, con una **comida autogestionada** en la que la organización proporcionará migas del Roncal y txurrasko a la brasa y con una **sobremesa amenizada musicalmente** por el **DJ Bixen Aldaz Goñi**, que también se encargará de la sonorización del homenaje.
- Este año ha sido **Irati García Etxeondo** la ilustradora que ha continuado la tradición de generosa colaboración de artistas y diseñador@s en la realización del cartel del homenaje.

De cara a este verano, os recordamos que una vez más próximamente tendréis disponible ver en nuestra web y canal de You Tube (<https://www.youtube.com/@memoriarenbideak6014/videos>) un resumen del homenaje, grabado y editado por la **productora Bi Ahizpa**.

Además, durante el verano Memoriaren Bideak, en colaboración con el Centro de Interpretación de la Naturaleza de Otsagabaia y el Instituto Navarro de la Memoria, realizará varias visitas guiadas al barracón de Igal, reconstrucción de uno de los barracones en los que dormían los prisioneros que trabajaron en la construcción de esta carretera.

